



Zer eta nor da CEBEK?

Langile askoren galdera da: norekin negoziatzen dira hitzarmenak eta zergatik hainbeste manifestaldi bukatzen dira Bide Nagusian, 52an, CEBEken eogitzaren aurrean?

CEBEK (Confederación Empresarial de Bizkaia + Bizkaiko Enpresariaren Konfederazioa) gure bulego eta langetarako hitzarmenaren negoziazioan patronala da.

Nortzuk dira? Egia esan ez dakigu zein enpresari ordezkatzeko dio CEBEKek. Sindikatu batek, ordezkari izateko, hauteskundeetara jo behar du, eta Eusko Jaurlaritzan kontsulta daiteke bere ordezkari izateko, han hauteskunde guztien emaitzak erregistratzen direlako. CEBEken enpresak, ordea, ez dakigu zeintzuk diren eta are gutxiago sektore konkretu batean duten ordezkari izateko, zeren **ez baitago halako erregistro publikorik.**

Nola finantzatu da CEBEK? Agian CEBEken enpresak kuota bat ordaintzen dute, edo agian ez, ez dakigu. Baina argi dago CEBEKek elkarrizketa-mahaietan esertzeagatik, eta edukiz hustutako hitzarmenak sinatzeagatik, heziketa emateagatik eta abarregatik diru-laguntza publikoak kobratzen dituela.

Baliteke beste patronal bat hitzarmenak sinatzea? Duela egun batzuk, euren patronalarekin pozik ez zeuden enpresa batzuk beste erakunde bat sortu dute (Euskaldendak), eta sektoreko hitzarmena ere sinatu dute. Gainera, sinatutako hitzarmena CEBEken tesiaren oso urrun dago: Betiko ultraaktibitatea, KPIren araberrako igoerak, erreformaren kontrako klausulak, eta abar.

GFI Norteko laburrak **Eskuak gora! Dirua edo lana!**

Azken bolada honetan lankide batzuek enpresak giza baliabideen bitartez jarraitzen duen estrategiaren berri eman digute:

Lankide batzuei, antzinasunarekin batez ere, inputatzeko proiektu barik geratzen direnei, hainbat aukera ematen ari zaie, hala nola soldataren jaitsiera edota borondatezko eszedentzia. Hori guztia kaleratzearen mehatxupean.

GFI Norteko ELA sindikatu-ataletik egoera hau pairatzen ari diren langileei gure ataleko edozein kideri esatea gomendatzen diegu irtenbiderik onena bilatzeko.

Era berean, gure ataletik mota hauetako prozedurak argi eta garbi salatu nahi ditugu, proiektuetako etekinak lortzeko soilik zuzenduta daudelako, eta aldi berean **proiektuen benetako balio erantsiari uko egiten diote, langileei hain zuzen ere.**

Gainera, lankide guztiekiko elkartasuna eskatu behar dugu, zeren guztiak, goiz edo berandu, egoera berdinean egon baikaitzke.

47 egun falta dira hitzarmen barik geratzeko

Negoiazioaren laburpena luzatzen dizuegu. **Hauxe da, patronalak "emandakoa".**

Hau da patronalak bere langileentzat nahi duena. Sindikatuak betiko egon daitezke mahaian, baina patronalaren azken proposamena ez da aldatuko indarra dugula erakusten ez diegun bitartean. Zure esku dago sektorearen etorkizuna: **Hitzarmen duin baten alde, Urriaren 30ean, greba!**

| Primera propuesta patronal <i>01/03/2013</i> | Última propuesta patronal <i>30/10/2013</i> |
|---|--|
| Iraupena 2 urte: 2013 eta 2014. | |
| Lan jardunaldia +20 ordu gehiago. | Oraingo lan jardunaldia (1742 horas). |
| 170 orduko poltsa enpresariaren eskaerapean lan egiteko. | 150 orduko poltsa enpresariaren eskaerapean lan egiteko. |
| Lan-egutegiak asteburuan lan egiteko aukera ematen du | |
| Soldata-igoera barik 2013an. | 0,25% (soldata-erregimena ez aplikatzeko klausularen prozesua hasi ez diren enpresatan) 2013 urterako. |
| Gutxieneko bermea kendu 2014an. | 2014ko BPG-rekin lotutako igoera. |
| Heziketarako baimenak enpresa eta langilearen artean adostu behar da, baina ezin dute langileen %10 baino gehiagok erabili aldi berean. | |
| Dieten murrizketa: Gosaria 3€, bazkaria 12€ eta afaria 10€. | |
| Antzinasuna kendu | Hirurteko-tik bosturteko-ra pasatzen da (%5). Gehienez 2 bosturteko. Oinarria 2012koa izanda. 2014an ez da ordaintzen antzinasuna. |
| Bajak ez dira osatzen | Lehenengo bi bajak baino ez dira osatzen. |
| 5 lan-talde. | |
| Diziplinazko erregimena sartzera (Santioak eta faltak). | |
| Soldata-erregimena ez aplikatzeko klausula mantentzen da enpresariaren borondatepean. | |